

# Nafarkaria



• ostirala • 1999ko abenduaren 24a

**Egunkaria**

Gehigarri honetan

**Iruñea** • Karrikiri elkarteak une oro langile euskaldunen bat duten denda eta tabernen zerrenda plazaratu du. **Tasio** • «Kaleko kontuak islatzen saiatzen naiz komikietan»

## Munduko argazkilaririk xumeenak



• ZABALDI

Zabaldi elkartasun etxeko euskara taldearen ekimena izan da. Siria, Senegal, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Euskal Herrian argazki makinak eman zizkieten hainbat neskato eta mutikori, baita honako araua ere: «Koadrotxoan ikusten duzuna besterik ez da agertuko argazkian. Botoia sakatu, eta saia zaitez argazkia leku ilun batean ez ateratzen». Horren emaitza ikusgai dago egunotan Zabaldin, hots, herri horietako gaztetxoek egin zituzten argazkiak.

# Lizarra • Alde zaharreko denda euskaldunak

Karrikirik uneoro langile euskaldunen bat duten taberna eta denden zerrenda plazaratu du

**Merkataritzan euskararen erabilera areagotzeko, merkataritza idazkietan gehiago ager dadin eta euskararen beraren azterketa egiteko egin du Karrikirik Iruñeko Alde Zaharreko denda eta taberna euskaldunen errolda.**

**N**AFARROAKO BESTE ERE-muetan egin izan dute halakorik, Bortziriak, Male-rrak edo Burjatan adibidez. «Baina halako lana instituzio-ek egiten dute normalean, batez ere, euskara zerbitzuek», azaldu du Karrikiriko kide Isabel Ferreirak. «Aurrekontu mardulak dituzte horretarako. Guk modu xumeagoan egin dugu».

Karrikirikoeak, lehenbizi, gutunak bidali zituzten Alde Zaharreko denda guzietara euren egitasmoa zein zen azalduz eta denda bisitatu behar zutela abisatuz. Betiko dendak aukeratu zituzten, behe solairuan daudenak eta salmahaia dutenak. Orotara 450 saltoki ingurutan izan dira. Bisitak Isabel Ferreira eta



## Iruñean langile euskalduna duten taberna eta denden zerrenda:

**Tabernak:**

Aitzina, Barkatu, Calixto, Deportivo, El Monton, Garcia, Iruñazarra, La Campana, 84, Roch, Ttanttaka.

**Dendak:**

Erosle, Koldo harategia, Arkadia opariak, Monimbo opariak, Ebano opariak, El Zagan opariak, Mendi Kirolak, Perkain kirolak, Amalur jantziak, Xinaurria jantziak, Ying eta Yang jantziak, Natural fashion jantziak, Euskal Piel, Kukuxumusu, Perejil jantziak, Biona jantziak, Begoña artileak, Medina lenteria, Nahikari gozokiak, Lislore loreak, Mena argazkiak, Auzolan, Xalbador, Askobereta liburudenda, Abarzuza liburudenda, Martinez Erro apaingarri erlijiosoak, La Mota kañamo denda, Zapatari zapatak.

A. PEÑALBA



Une oro dendari euskalduna duten komertzioek Karrikiriren logotipoa dute. • JOXE LACALLE

Mikel Garcia Karrikiriko kide-ek egin dituzte.

Eurek diotenez, harrera ona jaso dute orokorrean, espero zutena baino hobea. Dendetara joateaz batera, in-

kesta bat egiten zieten euskararen egoera aztertzeko. Eki-menarekin bat egiten zutenel bigarren bisita bat egin zieten hitzarmen bat sinatzeko proposamenarekin: Karrikirik

eskaintzen zuen publizitatea egitea eta aholkularitza lana ahalbidetzea, eta dendakoek, bertan beti langile euskalduna izanen zelako konpromisoa hartzen zuten.

→ Asier Azpilikueta

muga enea

MIKEL REPARAZ



**B**akarren baten burutazioa. Eguberri tenorerako inbertsioa, burutazioaren jabeak omen dioenez. «Hirugarren milurtekoan, Barrankako angulak». Egitasmo horri segi, Loteriak sarituen inbiditarako, artean ezezaguna den enpresario-zuloren batek suziariak izekiko ditu Gabon Zaharrean. Duela urte aski ekin baitzion norbaitek Arakilen aingerak hazi eta bezatzeari. Antzinatek ez ei zen aingerarik ikusten Sakanako putzuetan, auskalo zein bisoi-granjatako zorieko igaraba iheslarien letagin artean desageratuak denak.

Brasilgo hondartza tropikaletatik Kantauriko ur hotzetara datozen angulak harrapatu eta Medite-

## Arakilgo angulak

raneoko ibaiadarrei egokitu zizkien angulazale inbertsoreak. Ondoren, Mallorcarako bidea erakutsi eta Ebrotik Argan gora Arakileraino etortzen bezatu zituen, merkeago litzaiekeelakoan Brasilen baino oporrak Palman pasatzea. Emaitza: sarebete angula gauero, esportaka, karrotiloak aldapan goiti. Mallorcan sortutako milaka, are, milioika arrainkume-harrobia sakandar *anonimo-aren* ogibide baino urrezko bide bilakatu den arte. Hirugarren milurtekoa ez baita Loteriaren milurtekoa izanen -ez eta Euskal Loteria Nazionalak munduaren aitzinean are ttipiagi eginen bagaitu ere-.

XXI. mendeak Arakilgo angulak eginen ditu

ospetsu, Bardeetako ostruka-saldoak, Iratiko esturioi-arrautza preziatuak, Baldorbako datil-palmondoak eta inguruko *bamboo* transgeniko alor- rarak, Lizarratik Ebrora landatuko dituzten milaka peila edo azalore koloredunak -peila purpura ziape-kolorekoa edo hori-fluoreszentea baino hagitzez garestiagoa izanen da-, Urbasako larre- etan luze eta zabal ibiliko diren bi mila kiloko ze- bu-dulak, Pitillaseko udaberri-erroiluak eta Bor- tzirietako pizza interaktiboak. Zeresanik ez, hel- du den mendeko Halloween gauetan Ziorditik Cortesera haurrek piztuko dituzten arbi eta kala- baza... adimendunak! Edozer, Loteriaren biktima baino.

# Leitza • Guatemala

## haurrei laguntzeko

Hurrengo sei urteetan 30 umeri laguntzeko 24 milioi pezetaren bila ari dira

**Begoña Zestau eta Sara Alduntzin leitzarrak dirua biltzen ari dira Guatemala hogaite hamar umeri sei urtetan hezkuntza ziurtatzearen.**



Quetzaltenango herriko merkatuan musikari batek egurrez eta kalabazez eginiko muninba tresna tradizionala jotzen du. • BEGOÑA ZESTAU

**H**AMAIA KOMERIA PASATU OSTean, Guatemalaino joateko dirua bildu zuten Begoñak eta Sarak, eta, hala, aspalditik zuten nahi bat bete zuten. Guatemala gobernu kanpoko erakunde bateko kide diren lagun batzuk ezagutu eta bi hilabete eman zituzten bi leitzar hauek, irakurtzen irakasten edo heziketa arloan lan egiten.

Begoña Zestau Quetzaltenango herrian izan zen, eta bertan don Pablo ezagutu zuen. Hark zuen proiektu baten berri izan ondoren, egun hauetan buru-belarri ari da beraien asmoak zabaltzen. 27 urteko leitzar honek, egunotan han eta hemen diru asko gastatzen dela kontuan izanik, Leitza Udalari eta herritarrei dirua eskatu nahi die. Ez du karitatez ematea nahi, justizia egitea baizik, le-

geek agintzen dutena betetzea baita beraien proiektuan aldarrikatzen dutena.

Ume askok hezkuntza ona jasotzeko aukerarik ez dute eta, horregatik, datozen sei urteetan, hiru fasetan banatuta, lan eder bat atera nahi dute aurrera. Denetara, hamar familiatako 30 haur izanen dituzte beraiekin, eta don Pablok Guatemalatik jarraitpen zorrotza egingen du hemendik bidaltzen duten dirua zertan erabiltzen den jakite-

ko. Asmoa da ilbeltzetik aurrera abian jartzen den matrikulazio kanpaina ume horiek guziak egotea eta haiek behar dituzten osasun azterketak egitea.

Bigarren fasean hezkuntza plana etorriko da, ikasturtean sortzen diren gastuak ordaintzeko. Hirugarren fasean familia-plangintzari buruzko ikastaroak antolatu dituzte.

Hori dena gauzatzeko 24 milioi pezeta behar dituzte (960.000 libera) Tzuk Kim Pop

GKEko mugimenduko kideek. Begoña Zestauk ate de xente jo ditu. Iruñeko Uharteko eta Leitza Udalak, %0,7a ematen duten enpresa guztiak... Zestauk herritarren laguntza jasotzea espero du, ilusio handiz eta, horretarako, kontu korrante bat zabaldu du Nafarroako Aurrezki Kutxan: 2054/ 0024 78 912335971.8 (Begoña Zestau - Guatemala laguntza).

→ Eli Belauntzarán



**herri aldizkariak**  
Miren Iriarte

## Iparraldeko ikastolen egoera aztergai

Iparraldeko ikastolen sorreraz eta gaurko egoeraz mintzo da **Herria** aldizkariaren azken alea, Muslariak sinaturiko artikuluan. Duela hogaite hamar urte Iparraldean sortu zen lehenengo ikastolak bizi izan zituen zailtasunaz eta gaur egun Seaska bertako ikastolen elkartean egoeraz hitz egin du Muslariak.

«Iparralde hontan 1969-an ideki zen lehenbiziko ikastola, Argitxu Noblija sustatzaile. Baionan kokatu zen lehenik, bainan laster lekuz aldatu eta Arrangoitzen plantatu... Ordukotz, ikastolen mugimendu hori hein

bat zabaltzen eta azkartzen hasia zen Hegoaldean, traba handiak ere kausituz haatik. Franco oraino nagusi handi baitzegoen Madrilan...».

«Geroztik, urak egin du bide. Ikastolek ere ba. Iparraldean berean, badira orai 23 ikastola eta 1800 haur eskola horietan ibilki».

«Frantziako hezkuntza zerbitzuen ganik, lehen laguntzak, arras xuhurrak egia erran, ardietsi ziren 1982-an. Ondoko urtetan, beste urrats batzuekin egin ziren aintzinerat. Gaurko egunean, hitzarmen bat badago Seaska eta frantsez hezkuntza minixteri-

tzaren artean egina. Hain xuxen, Seaska erakundeak, horrek baititu elgarretaratzen Iparraldeko ikastola guziak, nahi du hitzarmen hori poliki gehitu eta azkartu, ikastolek ezagupen hobea ukaiteko oraino, hori baitezpadakoa dela geroari buruz».

Muslariak ikastolen aurrera egiteko nahiaz ere hitz egin du; 2000. urtean 2.000 ikasle lortu nahi dituzte, eta lan horretan Seaska elkartearen lehendakari berria ariko da. Itxaro Bordak hartu du Mari-Jo Anetasek utzitako kargua.



**urdai  
aren  
mintzoa**

Xabier Larraburu

## Gingko biloba

Usain arraro eta mitiko baten berri eman nahi nizuen gaurkoan, baina ezin. Hau da istorio guztia: orain dela urte batzuk Txina Urruneko Pekinen mundu osoko emakumeak bildu ziren eta gure adiskide bat ere han ibili zen jo ta fuego. Bueltan, Takonerako kafetegian egin genuen hitzordua Txinako kontuak entzuteko eta abar. Oroitzen naiz, oso kuriosoa izan baitzen, gauza guztien aurretik Txinan ikusitako zuhaitz bati buruz hasi zela hizketan: «Erakutsi ziguten —esan zigun— «dinosauruen garaietako zuhaitz eder bat, izen xelebrea zuena, orain dela 200 milioi urte zutik zegoena eta oraindik ere zutik dirauena, gainontzeko zuhaitzekin harreman zuzenik ez duena, espezieen nahaspila horretan bakartua gelditu dena».

Gutako batek handik hamar metrotara zegoen zuhaitza seinatuz, «horren antzekoa?», galdu zion. Eta besteak, harriturik, baietz. Horixe bera zela zuhaitza. «Gingko Biloba —esan zigun gure lorazainak—, 1700. urtean Europara ekarri zuten, badira arrak eta emeak, baina lorezaintzan arrak besterik ez dira landatzen. Emeen fruituak usain nazkagarrikoak baitira. Nardargarriak. Bost urtetan behin edo ateratzen omen zaie fruitu borobil eta nazkagarri horiek». Tol Geroztik deigarria egin zaizkit beti gure hizkuntzaren antzeko zuhaitz isolatu horren berexitasun guztiak. Hostoak zirkuluaren erdia dira eta udazkenean, hori-horiak jartzen direnean, ikusgarria da, ederra. Orainxe bertan, abuztuko azken egun hauetan, biluzik agertzen dira. Dena abar eta abartxo.

Horregatik, orain dela hiru egun hartu nuen ustekabea. Takonerako Gingkoei begiratu eta adarretatik borobil laranja batzuk zintzilik ageri ziren. Bi Gingkok fruituak eman dituzte. Fruitu mitikoak! Lurrean zeudenak, haragi laranja eta usteldua zuten horiek, espantuz begiratu nien. Goizeko kafea hartzerako nihoan eta, beraz, kokoriko jarri eta haiek usaintzera ez nintzen ausartu. Gaur intentzio horrekin jaitsi naiz Takonerara. Zuhaitzetara hurbilduz nihoala agure bat ikusi dut haien ondoan. Plastikozko poltsa bat zuen eskuan eta banan-banan lurrean zeuden fruitu guzti-guztiak biltzen ari zen. Hara! Beste bost urtez itxaron beharko dugu usain mitologiko hori atzemateko. ●

# Munduko haurrak argazkilari

Hainbat herritako haurrek eginiko argazkien erakusketa antolatu du Zabaldik egun hauetarako

Siria, Senegal, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Euskal Herria. Herri horietan argazki makinak eman zizkieten 10 eta 14 urte

bitarteko hainbat neskato eta mutikori, baita honako araua ere:

«Koadrotxoan ikusten duzuna besterik ez da agertuko argazkian. Botoia sakatu eta saia zaitetz argazkia leku ilun batean ez ateratzen». Gaztetxoek eginiko 50 argazkiekin erakusketa egin dute Zabaldiko euskara taldekoek.

Koldo Azkune:

«Argazkietan ikusten da zer nolako ezberdintasunak dauden, baina, bidenabar, ikusten da ezberdintasun horiek baldintzetatik sortzen direla, ez berezko ezaugarrietatik. Hori da inportanteena, ikustea haurrak berdinak direla Euskal Herrian, Sirian edo Guatemalan»

ZABALDIN HAURREN INGURUAN ZERBAIT berezia egiteko asmoa zuten, Zabaldiko euskara taldeko Koldo Azkunek azaldu duenez. «Haurren inguruko kontuei buruz helduak solastu izan dira beti, eta guk haurrei eman nahi genien hitza. Zabaldin internazionalista dezente ibiltzen dela aprobetxatuz, hauxe egitea bururatu zitzaigun: beste herri batzuetara zihozenei bina argazki makina ematea, hango haurrek, neska batek eta mutil batek, bere bizimodu eta inguruaren argazkiak egin zitzen, eta, gero, argazki horiekin erakusketa egitea. Bagenekien diru aldetik ez genuela askorik edukiko, eta hau orijinala eta merkea izan da».

**Arau teknikoak, besterik ez**  
Zabaldiko internazionalistek bisitatu behar zituzten lekuen arabera aukeratu zituzten ekimeneko herriak. Internazionalistek arau teknikoak besterik ez zizkieten eman behar haurrei: «Argazkiak distantzia batera atera behar dituzue, leku ez ilunetan, eta botoi jakin bat sakatu behar duzue». Horiek ziren agindu bakarrak. «Haurrei esaten genien beren errealitatea, bizimodua eta ingurua islatu behar zutela 27 argazkitako karrete batekin», adierazi du Azkunek. «Beste guzria beren esku zegoen eta, horregatik, sekulako aniztasuna dago argazkien artean».

Hasiera batean erakusketa herriko saikatu nahi zuten. «Baina gero ikusi genuen argazkilari oso ezberdinak zeudela, batzuk nahia go zizutela animaliak ateratzea, beste batzuk nahia go zutela pertsonak ateratzea, eta, azkene-



an, beste saikapen bat egin dugu: paisaiak, haurrak banaka, binaka, hiruak, sentartekoekin, helduak, altzariak eta animaliak». Azkunek dioenez, jakin badakite halako erakusketetan erraza dela demagogian erortzea, eta argazkiak herrien arteko ezberdintasunen bila aukeratzea. «Guk manikeismo hori alde batera uztea erabaki genuen. Egia da aukera bat egiterakoan atzetik badirela irizpide batzuk. Baina gure irizpideak ez dira ezberdintasuna markatzeko, argazkien kallitate teknikoaren inguruak baizik. Artistikoki eduki gehien dutenak aukeratu ditugu. Hor daude argazkiak, horiek erakusten dute errealitatea. Ez da zertan manipulazioen erori. Ikusleak aterako ditu bere ondorioak».

**Ezberdinak baldintzengatik**  
Azkunek erakusketa antolatu eta ikusi du, baita bere ondorioak atera ere: «Erakusketa ikusi eta gero gelditzen zaizun mezua da, azken finean, haur guztiak berdinak direla, aldatzen diren gauza bakarrak baldintzak direla. Berez ikusten da zer nolako ezberdintasunak dauden, baina, bidenabar, ikusten da ezberdintasun horiek baldintzetatik sortzen direla, ez berezko ezaugarrietatik. Hori da inportanteena, ikustea haurrak berdinak direla Euskal Herrian,

Sirian edo Guatemalan, baina ingurua ezberdina da».

Zabaldikoek erakutsi dute halako aurrekontu txiki batekin ere egin daitezkeela gauza interesgarriak. Baten batek, erakusketa ikusirik, agian pentsatuko du argazki bat edo beste ez dela haur batek egin. «Guk hori ezin izan dugu konprobatu», esan du Azkunek. «Pentsatu nahi dugu argazki gehienak haurrek ateratu dituztela, baina inork duda izpirik baldin badu, jakin dezala inondik inora ez dituela profesional batek ateratu, eta ateratu duenak ez duela inoiz argazki makinarik hartu, eta, ziur aski, ez duela inoiz gehiago hartuko».

**Ikuspegi zabalagoa**

Azkune Mexicon ibili zen, eta haraino eraman zituen bere kamerak. «Lehenbizi saiatu nintzen Distrito Federaletako haurrekin. Baina haiek diru beharrak dituzte, eta lau argazki makina saldu egin zituzten. Gero, Chiapasko haurrekin lortu nuen». Denbetera sei makina galdu zituzten Zabaldikoek. 1.000 pezetako makinak ziren. «Eta hala ere nahiko ongi ateratu dira argazkiak, kontuan

izanik haurrek ateratu dituztela, ez direla profesionalak eta askok ez dutela inoiz argazki makinarik erabili», dio Azkunek. «Badira gauza bitxiak, gainera. Esate baterako, haurrek ikuspegi zabalagoa dute. Familia bat ateratzeko orduan ingurua ere sartzen dute. Ikusten da herria ere zenbat



Siria, Senegal, Kuba, Guatemala, Nikaragua, Mexiko, Kolonbia eta Euskal Herriko 10 eta 14 urte bitarteko gazteboek egin dituzte erakusketako argazkiak.

ZABALDI

«Zabaldin internazionalista dezente ibiltzen dela profitatuz, beste herri batzuetara zihozenei bina argazki makina eman zizkieten, hango haurrek, neska batek eta mutil batek, bere bizimodu eta inguruaren argazkiak egin zituzten»



eta garatuagoa izan, argazkiak orduan eta estandarragoak direla. Beste herrietan askatasun handiagoa eta ikuspegi arraroagoak ikusten dira».

Azkenik, Azkunek azpimarratu du haurren anonimatoa gorde nahi izan dutela. «Sarritan halako erakusketak antolatu dira lehiaketa baten gisara», erran du. «Argazkirik onena egiten baduzu sariren bat emanen dizugu», esaten diete haurrei. Guk alde aurretik argi eta garbi esplikatzeko

genien zein zen gure asmoa, inolako gozokirik eman gabe».

Munduko argazkilariak xumeenak erakusketa ikusgai dago Zabaldi Elkartasunaren Etxean (Nabarrerria, 25) urtarrilaren 10 arte, astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Goizetan ondoko denatetik sartu behar da Zabaldira.

→ Asier Azpilikueta

Klasiko bitxi • arront klasiko

Joxemiel Bidador

# Euskerazaintzako beste idazle baten gainean

Pasa den hilaren 13an Estanis Urruzola *Uxola* jaio zeneko 90 urte bete ziren, eta gurean nahikoa oharkabean igaro bazitzaigun ere, ezin ukatu geure garaiko euskal idazle naroa eta maratza izan zela, antzerti arloan bereziki; bere ospe apalaren arrazoiak pisuzkoena, segurki, Euskerazaintzaren kide izatea dateke, aberastasun zabal baten adierazgarri beharko lukeena, baina euskara kontuetan guztiz jarrera txauvinista eta fundamentalista samarretara goazen egunean traba baizik ez dena.



**E**san bezala, Estanislao Urruzola Bitoria 1909.eko azaroaren 13an jaio zen Tolosan. Komertzio ikasketa apurak bertako eskolapioetan buruturik, gazterik gazte hasi zen idazkolaria baten langile, eta gazterik ere EAJko bazkide gartsu izan genuen. 36.eko gerratean gudari ibili zen Itxarkundia bataillonetan; Laredon errenditu ostean, giltzapeturik ibili zen espetxez espetxe —Mirandan, Bilboko Eskolapioetan, Larrinagan, Puerto de Santa Marian, Yeseriasen, Valladoliden, Ondarretan...—, harik eta 1947.ean Bruselara joateko aukera profutatzen zuen arte. Belgikan dozena bat urte eman zituen isilpeko sindikalgiaren arloan langile porrokatu, 1966.eko Nazioarteko Kristausindikalisten Batzarrean euskal ordezkari ihardun zuelarik. Franco garaiko ondar urteetan Euskal Herriratu zen; alabaina, poliziaaren espainiarrak ez zuen bake ederrean utzi, eta susmopean behin baino gehiagotan atxilotu, galdekatu eta baita gartzelaratu ere egin zuen.

Urruzola idazle goiztiarra izan zen, eta lan gutxi argitaratu eman bazuen ere, egile emankorra izan genuen izan; lan zabaleko egilea, duda izpirik gabe, Santi Onaindiak definitu bezala, «gizaseme griñatsu ta ziri-mara, idazle aspergaitz, teatro-zelaian batez ere». Gerra bitarteko aldizkako hainbat argitalpenetan hasi zen idazten Urruzola, betiere *Uxola* ezizenpean: EAJren sarean argitaratzen ziren *Euzkadi* eta *Eguna* egunerokoetan zein *Lan-Deya* ELAren paperean, edota Nafarroako kaputxinotarren *Zeruko Argia* aldizkarian. Erbestera joan zenetik 1986.ean zendu zen arte, berriz, bestelako argitarapenetan ere agertu zizkigun bere lanak; esate baterako, *Agur-en*, *Argian*, *Egan-en*, *Euzko Gogoa*-n, *Goiz Argi*-n, *Olerri*-n, baita Euskerazaintzaren paperean ere. Herri Akademiaren idazkaria izatera iritsi zelarik.

Arlo literario guztietan saiatu zen *Uxola*. Itzultzaile trebe eta aukeratua, Georges Simenonen

*La de pendu Saint-Pholien* —*Liejako urkatua*—, Edgar Wallaceren *Iron greep* —*Burni atzapar*— eta François Mauriacen *Noeud de vipères* —*Sugegorri korapilloa*— hiru elaberri irauli zizkigun, zeinetarik Mauriacena bakarrik eman zen argitara Kardaberaz bildumaren barruan; Andreieven, Andersen anaien eta Dickens hainbat ipuinekin sorta ederra osatu zuen, baina gogokoan zuen antzerki arloan burutu zituen bere itzulpenik gehienak: Rabindranath Tagoreren *Erregeren karteroa*, Mauricio Rosencofen *Zaldiko maldiko biurria*, Alvarez Quinteroaren *Doña clarines* —*Andra txintxarria*—, J. Conty eta G. Visanten *Le hockey*, Bernard Shawen *Pigmalion*, eta abar luzea.

Hitz lauz berauk sortu lanen artean izkiriatu zituen ipuin ugari eta lau eleberririk aipatu behar ditugu. *Uxola*—k izkiriatu aunitz ipuin aipatu aldizkako izparringietan azaldu zaizkigu—Añamendi Literatur Entziklopediaren laugarren alean *Egan*-en agerturiko *Martin Txintxo* eiztari ipuina jasorik dugu irakurgai erakusgarri—; alabaina, ez da zalantzarik ezagunen gertatu zen istorioa *Zo-taletxeko artzaia* izan zela, bada, ipuin honekin irabazi baitzuen Arantzazuko urte jubilarraren zela eta

1956.ean iragarri lehiaketa literarioaren lehenbiziko saria. Aipatu lau eleberririk, aldiz, *Andoni*, *Xixorien gertaerak* polizi-idazkia, Western giroko *Pelotariak*, eta Oiarzun inguruko sagardotegi batean girotu *Ezpalak* dira. Honako azken hau 1971.ean Agur-ekoek antolatuta Gotzon Garitaonaindiak Literatur Lehiaketaren bigarren saria izan zen, eta, tamalez, lauretarik argitara ateratu den bakarra izan da, Kardaberaz Bazkunakoen eskutik; liburu honek, bestalde, egileak senitartekoa zuen Antonio Maria Labaienek egindako «Atari-izketa» labur baina adierazgarria dakarkigau aurreneko orrialdeetan, non

eleberraren ezaugarriak zuzenki xehatzen zaizkigun: «Elaberria irakur erreza dezute ipui tankera zalu ta argian idatzita. Elkarrizketa ugari samarrak dauzka ederki josiak eta bizitasuna aundia gertakariari ematen diotenek. Guztiea esaera eta gogai errikoiez aberastua atal bakoitza neurritz tajutu ta borobildua dago. Aria galtzeke jostuna kontakatillu trebea degu». Olerkaria ere bazen izan *Uxola*, maila apalagoan izanik ere, eta 1964.ean Donostiako Euskal Jailetan olerki mailako bigarren saria eskuratu zuenetik, gailendu izan zen bestelako sariketatzen ere. Zauruzkoan zein Errenteriakoan besteak beste.

Guztiarekin ere, antzerkia izan zen Urruzolaren arlo hauta, itzulpen gintzan eginkotik aisa atzeman daitekeenez. Berrogeita hamar bat inguru antzerkilan egin zituen, haletariko asko eta asko bere momentuan antzeztuak ere izan zirenak: *Aitorren altxorra*, *Andragai bat Arregi baserriko*, *Azkatasun garratza*, *Barkapena*, *Begi ta biotz gabeko aragi multzoa*, *Beltza*, *oa*



*askatasunean*, *Billaua bainan billauagoa*, *Biok...*, *Jeolimo, alajaiña!*, *Biotz zekena*, *Buzokiko bost ziran*, *Ekin-tza*: *Polonia*, *Eska-*

*learen eguberria*, *Eskergaiztokoa*, *Eskolari piper*, *Espetxeratu 2000*, *Euskal mendien eskontza*, *Ezkontzeko deta*, *Gorrotaren emaitza*, *Gurutz ori nere bizkarrean ar-tuko det*, *Ikastolaren aurrean pastel bat*, *Indarraren legea*, *Itxarritxoren altxorra*, *Itxarritxoren altxorra*, *Itxarritxoren altxorra*, *Itzulera*, *Kontuz Dalilaren*, *Lapur eta maltzur*, *Larreborda emen izan zan*, *Lau lore erregin baten-tzat*, *Lengusu amerikanoa*, *Mamuxka*, *Marrubiak*, *Neronek nere alaba galdu nuen*, *Odol urdiñekoak*, *On egiteagatik irakasle*, *Perretxiku batzaldia*, *Salkindaria*, *Sor Gurutze*, *Untzabeko kimu berriak*, *Yolanda*,...

etorri ahalean

Patziku Perurena

## Orentzeroren familiaz

**P**inu, goroldio, elur, erreka, zubi, ardi, asto, idi, lasto, enbor, su, danbolin, gaztain erre, hiru errege, izar gidari, belengo estalpe, orentzero, preso, kanta, errito, jostailu, angula, turroi, loteri, txanpan edo birjina maria santissima, igoal igoal dio. Apaindura huts besterik ez dira guziak. Funtsean familiar egin nahi zaio gorazarre. Giza sumisio modu ororen enbrioia baita familia: gizatasun partikular posible guziak, sortze beretik hipotekan hartzen dituen muintegia.

Hitzaren etimologia finak berak erakusten du hori ederki: «*Familia: del lat. 'famulus', que significa sometido, sumiso, obediente, sirviente, esclavo: pues estaba constituida por todos aquellos que estaban bajo la potestad del cabeza de familia*». Ezin bestela izan.

Bat izan liteke ezkerrekoa, sozialista, solidarioa eta beste edozein fartsa jator horietakoa, baina, familikoa baldin bada akabo: beste edozein esaneko eta menpeko duzu gizajoa. Eta neregatik diot beste inorengatik lehen. Inoiz ez dut saldu neure gogoa azken lau urtetan baino mairago eta merkeago. Gurasoen familatik atera baino lehen zeurean sartzea baino hobirik ez horretako. Eta gaitzerdi, gogobihotzez neure azpiko ditudanak konprenitu eta laguntzeak, neure izpiritu pizarra malamentean galtzeko bestetako balio izan ez didala ohartuko ez banitz!

Ez, gero eta arrotzago sentitzen dut neure burua gizarte-an. Hamaika ergelkeria aditu eta ikusia nago *eztei zibil*, *ezkontz natural*, *lagunarteko uztartze*, *boda liberal* eta *gisa-koak aitzaki*, eta zinez diot, duela 50 urteko eliz ezkontza ximple eta eskeptiko batean baino mila bider apainkeria, sineskeria eta jatorkeria zikinagoa nabaritu dut halakoan familiarian.

Bai. Halako askatasun ega-

ria du egungo modernajeak, non lesbianak, transexualak, marikoiak eta inon direneko gay guziak familia ofizial eske ari diren Estatuari. Par egitekoa da, baina pena ematen du. Hiperberezia izan nahi du orain mundu guziak, baina, derrior hiperberdintasunezko paper ofizial batez Estatuak abalatu.

Inork ezin du eraman bere partikulartasun pittinik, eta inondik albaitean, beste guziak bezain familiar izan nahi luke, eta ipurtzulotik atera eta zakiletik bular eman ez bada ere, haurra hazi-nahiko du, bestela antzu gelditzen baitzaio familia; izanez ere, haurra izaki familiar enbrioia, eta nola jasan ba inork, gay edo ezgai, Estaturantzako antzu izate horrenik?...

Horregatik Jainkoaren seme hori, Jesusito disekatu hori, ez da abstrazio bat. Jainkoaren seme unibertsal hori, zure edo nere seme berbera da. Horri esker bizi dira munduko Estatu, Banku, eta gisako Jainko guziak. Enbrio ttiki disekatu horixe dute beren sare erraldoiaren lehen hari mutturra. Horretan hasten da, eta horretxetara biltzen, munduko filantropia optimista guzia.

Haurra da milaldi honek bizirik utzi digun heroi bakarra. Telebisioak haur harrotu dirudi, politikak haur lotsagabe, merkatuak haur semita lapur, zientziak haur ddostari... Beste guzia, haur horren menpeko gizatasun hondatua besterik ez da. Eta inon ez da ikusten hori, familia deneko enbrio horretan baino hobeki. Nor da izan ere, gaurregun, familiko buru, haurra bera ez bada?

Hortik atera noraino ailegatzten diren kristauaren iraultzak? Bi mila urteren buruan, haur baten menpeko dela aitortu beste erremedioarik galditzen ez bazaio? Non ageri dira giza jakinduri eta izpiritu indarren aztarnak?

## Ziria

• Motxorroslo •

### Berandu ote

**A**urretik sobera eztabaidatu ote den eztabaidaren zioa. Saihestezinekoa gainean, hainbat diziplina eske ari dira. Parisetik eta Madriletik erakusten duten adinakoa nonbait. Josetxorena espero ote genuen aitortzeko gauza al gara.

Tasio Komikilaria

# «Kaleko kontuak islatzen saiatzen naiz komikietan»

**Francisco Javier Etaio Tasio-k egunero kanporatzen ditu bere barne demonioak Gara egunkariaren komiki tiran. Duela 45 urte jaio zen, Sesman, eta besteak kritikatea gustuko ez duela dio, baina gaurkotasunak horretara behartzen du.**



HAINBAT SAIO ANTZUREN OSTean, Tasiok bere urte bateko lana biltzen duen libururu bat atera berri du, Ttarttalo argitaletxearekin.

■ **Zergatik atera duzu bilduma hau?**

Duela bost edo sei urte otu zitzaidan ideia bat zen hori. Egin egunkariari proposatu nion, baina gauza batzuegatik eta besteengatik ezin izan genuen gauzatu. Eta ia dena lotuta zegoenean, Egin itxi zuten. Gero Euskadi Informacionekin ez zen aukerarik izan, egoerak ahalbidetzen ez zuelako. Orain, Garan, lasaiago ibili-naiz, eta, jende askok eskatzen zidanez, atera dut nire tiren bilduma. Urte honetan izan den nolabaiteko baretasuna profitatuz atera dut, Ttarttalo argitaletxearekin.

■ **Ezin zenuten urte bukaera arte itxaron bilduma osatuagoa izateko?**

Kontua da Durangok markatzen duela argitalpenen erritmoa. Hau da saltzeko garairik hoberena, baita zure burua ezagutarazteko garairik hoberena. Eguberriak kontsumo bestak dira; libururu bat oparitzea ez dago gaizki.

■ **Urte lasaia izan dela erran duzu.**

Lasai bai, baina guretik kanpo. Barnera begira gauza anitz egon da. Hala ere, urte honetan lasaiago egon naiz. Beste urteetan tentsio handiagoa sentitu dut. Kalean egoera urduriagoa zen. Egin egunkariak, eta gero Euskadi Informacion-ek, guztien begiak zituen begira. Bagenekien, Egin ateratzeaz batera, guk erakartzen genuela tertuliano eta ministerioen arreta. Presio hori nabaritzen zen. Tentsio erreala izan da, batez ere, tertuliano talde jakin batzuek eragina. Nik zuzenean entzun eta ikusi izan ditut nire komiki tiren gaineko komentarioak. Hori Gararen urte honetan ez zait gertatu.

■ **Presoak eta Lizarra-Garazi agertzen dira gehien liburuan. Gaurkotasunak zure tirak markatzen ditu?**

Noski. Egunero informatzen saiatzen naiz. Goizez egunean garrantzia duten zenbait gai aukeratzen ditut eta eguerdi aldera tira ateratzen dut, betiere gaurkotasun gehien duen gaia jorratuz. Eguneko gaiak ez ditut nik aukeratzen, kanpoko pertsonen baizik, arras ezaguna den

«Egin'-ek tertuliano eta ministerioen arreta erakartzen zuen, eta presio hori nabaritzen zen. Nik zuzenean entzun eta ikusi izan ditut nire komiki tiren gaineko esamesak. Hori 'Gara'-ren urte honetan ez zait gertatu»

ministra bezalako pertsonen. Bera da biñetetan irudikatzen dena. Nik soilik kanpoan gertatzen den informazioa biltzen dut.

■ **Eta ez duzu gaurkotasuna alboan utzi eta beste zerbait jorratzeko gogorik?**

Beno, umore politikoa egiten dut, baina baita bestelako umorerik ere, hainbat argitalpenetan kolaboratzen ari baina. Nire lana askotarikoa da. Ez naiz politikara mugatzen. Ziklismo aldirik batean eta kamioien inguruko beste batean kolaboratzen

dit. Eta beste zenbaitetan. Nire lana dibertsifikatua dago.

■ **Zertarako balio dizu komiki tira bat egiteak?**

Hasteko, jan ahal izateko balio dit. Bigarrenez, lasaitzeko. Eta, azkenik, nire barne demonioak askatzeko.

■ **Eta jendeari zertarako balio dio?**

Irribarre ttiki bat egiteko eta, hausnarketa egiteko.

■ **Gara egunkarian, oro har, gai serioak jorratzen dira. Zaila da horien gainean umore egitea?**

Une politikoa araberakoa da hori. Orain, erraterako, errazagoa egiten zait. Baina beti kostatzen da. Jorratzen ditudan gaiak orokorrean hagitx serioak dira. Horregatik askotan ez da erraza buelta ematea eta albistearen alderdi umoristikoa aurkitzea. Ni saiatzen naiz kalean dauden kontuak islatzen.

■ **Zein pertsoniarekin egiten duzu umorea modu atseginagoan?**

Gustatuko litzaidake zenbait pertsonaia nire biñetetan inoiz ez ateratzea. Eta ateratzen ditudanean ez dut gustu-

soslaia

Tasio Sesma herrian jaio zen, Lizarrerrian, 1954ko martxoan. Irakaslea izan zen 1987an, Camino bere emazteak Gernikan lanpostu bat eskuratu zuen arte. Tasiok eszedentzia hartu eta urtebetez izan ziren Kuban. Baina Tasio ez zen bere lanera itzuli. Gernikara joan ziren bizitzera eta marrazkilaritzari ekin zion. Orain, hilabetean behin edo, Iruñera eta Sesmara joaten saiatzen da.

Tasiok etxean egiten du lan, penintsulako hainbat lekutako argitalpenekin kolaboratuz. 1989an Egin egunkarian sartu zen, baina ez azken orrialdean komiki tira eginez, ingurugiro gehigarrian umorista gisa baizik. Bi urte geroago azken orrialdeko komiki tirarekin hasi zen. Zortzi urte beraz, Egin itxi zuten arte. Gero Euskadi Informacionen ibili zen eta orain, Garan.

Kartelgilea, umorista, irudigilea eta komikigilea dela dio Tasiok. Leku anitzetan izan dira Tasioren lanak erakusgai, erraterako, Sesman, Gernikan, Iruñean, Baionan, Zaragozan, Bilbon edo Alemanian. Era berean, leku askotako sariak irabazi ditu, hala nola, Madrilen, Euskal Herrian, Tenerifen, Belgikan, Kuban edota Katalunian.

ra egiten, ez bainaiz besteak kritikatea gustuko duen pertsona. Baina inorekin umorea gustura egiten badut, nire buruarekin da. Liburuan ikus daitekenez, nire komiki tiritan ez dago pertsonaia nagusirik. Gertaerak kontatzen dira. Ez naiz askotan agertzen den eta denok ezagutzen dugun ministroaren zalea, eta ez dut ongi pasatzen ateratzen dudak bakoitzean.

→ Asier Azpilikueta



## Nafar Kronika

Gontzal Agote

### Mundua egunero amaitzen denean

**C**UANDO NIÑO YO SAQUÉ LA CUENTA DE mi edad por el año 2000, el 2000 sonaba como puerta abierta a naderías que silbaba el porvenir. Silvioren moduan, nik ere txikitak kontuak botatzen nituen, baina ez nuen zoriarekin data horrek ekarriko ziguna imajinatzen asmatzen.

Petrolioren krisialdiaren eta punk mugimenduaren eztearen artean jaiotako gaztetxok hurrengo mendea (ordurako milurtekoak existitzen zenik ez genekien) espaziontzia eta Martitzerako bidaietara lotzen genituen. Paisaia osatzeko, laser-izpiko armak ziren mirestuenak, eta estralurtarrak akabatzea gizaki zintzo oren eginbeharra.

Ailegatu da eta hemen gaude, erdibiluzik, mende berriari harrera egiteko erabat gogogabeturik. Espaziontzirik ez, dauden bakarrak zientzialari orojakitunek galtzen dituzte galaxien artean, eta kotxeetan hiltzen segitzen dugu.

Gainontzekoan ere, gauzak berdintsu. Etxeotako mahaia behar baino beteago agertuko dira, eta gure presoek egunak daramate jateari muzin egin ez. Dagoeneko ez bagara, txetxeniarrak izan gaitzeko, eta bonbak gosaldu, bazkaldu eta afaldu. Baina loteria txartelez finantzatu ditugu gure kontra erabiltzen dituzten armak.

Azken mende honetan inork ez dit inkestari egin, horregatik nik egingo diot neuri buruari. Non igaroko duzu azken milurteko gaua? E. e? Tahitin ala Artikoan? (Bidaia merketxo, txo!). Ez, aurretik ez dut bidaiatzeko gogorik, tradizionalagoa naiz.

Egun seinalatu horretarako hiru gramu perika, ron botila pare bat erosi eta bezperako soberakinak berotuko ditut, pelikula lizun bat ikusi eta seko atxurtuko naiz, eguneroko moduan. Munduaren amaieraren esperoan, goxogoxo... Gaur ez bada, bihar.

## gure aukerak

### OLENTZERO

- ▶ **Araitz:** Olentzero etxez etxe ibiliko da asto baten gainean. 10:00etan Atalun hasiko da, Arriben bazkalduko du elkartearen eta arratsaldean Betelun izanen da.
- ▶ **Areso:** 18:30ak aldera Olentzero betiko bordatik jeitsiko da.
- ▶ **Aranguren:** Aranguren, Labio eta Mutilloa Beheitin izanen da 17:30etatik aurrera.
- ▶ **Atarrabia:** 18:15etan aterako da Arreko Trinitatetik eta bere ibilaldiaren bukaera Atarrabia pilotalekuan izanen da.
- ▶ **Barañain:** Kultur Etxetik aterako da Olentzero 18:00etan.
- ▶ **Baztan:** Elizondan 17:00etan abiatuko da ikastolatik.
- ▶ **Bera:** Haurrek eta helduek Olentzerori kantatuko dioten 17:00etan Altxateko plazan.
- ▶ **Berriozar:** Maestro Turrillas plazatik aterako da 18:00etan.
- ▶ **Etxauri:** Olentzero menditik jeitsiko da 19:00etan eta herriko kaleetatik abiatuko da. Ibilaldiaren bukaeran gaztainak eta sagardoa banatuko dute plazan.
- ▶ **Eugui:** Olentzero herrian barna paseatuko da 19:00etatik aurrera.
- ▶ **Gares:** 18:30etan Etxe Gorrietan hasiko da Olentzero zoriontasuna banatzen.
- ▶ **Iruñea:** Alde Zaharrean 18:30etan aterako da Iturralde eta Suit karrikatik eta honako ibilaldia egingen du: Amaia, San Fermin, Carlos III, Merinaldeen plaza, Carlos III, Gazteluko plaza, Sarasate, San Ignazio, Bergamin,

Erriberri, Iturralde eta Suit. 17:00etatik aurrera Arrotxapean ibiliko da Joxemiel Barandiaran kaletik Marcelo Zelaia eta eñorbideraino (Carbonilla ikastetxearen parean). Donibanen 19:00etan aterako da auzo elkartetik.

▶ **Lizarr:** Lizarra ikastolatik aterako da Olentzero 17:30etan.

▶ **Oltzako zendea:** Oltzatik abiatuko da Olentzero 16:30etan eta zendeako herrietan zehar ibiliko da dantzarietara eta txistularietara lagundurik Ororbia 19:00etan heldu arte.

- ▶ **Orkolen:** Eskola Zaharretik aterako da 19:00etan dantzari, txistulari eta hankapaloekin batera..
- ▶ **Uharte:** Herriko plazatik abiatuko da 17:00etan.
- ▶ **Ultzama-Anue-Imotz-Basaburua:** Arraitz (18:00), Etxaleku (18:00), Jauntsarats (18:00), Olague (18:30) eta Iraitz (18:30) herrietan ibiliko da Olentzero.
- ▶ **Zizur Nagusia:** Olentzerok bere ibilaldia Kontseilu Zaharrean hasiko du 17:00etan eta Pizinetara 19:00etan helduko da.

### KONTZERTUAK

- ▶ **Berriozar:** Su Ta Gar, Kashbad, Joxe Ripiau eta Marea taldeek kontzertua eskeiniko dute bihar 21:00etatik aurrera pilotalekuan.

Eguberri bestak direla eta, heldu den ostiralean ez da NAFARKARIArik izanen. 2000 urteko lehen NAFARKARIA urtarrilaren 7an plazaratuko dugu. Zorionak eta urte berri on!

## Non dago Inma?



Milurtekoa hasi edo bukatuko den zehazteko dagoen garaian, afaria da urte batek eman duena aztertzeko lekurik onena. Halaxe egin zuten iragan ostiralean NAFARKARIAko eta Euskal Herria Irratiko *Metropoli forala* saioa langile eta kolaboratzaileek, Nafarroako euskal kazetaritzaren (kulturaren?) *Jet-set-a* beraz. Beno, politikoa bat ere sartu zen afarian, baina guti jaten zuela erran zuenez ez zioten erreparorik jarri. Eztabaida literario sakonetarako lekurik egon zer arno gorrri eta osobuko zatien artean, baina, oro har, bertaraturikoen solasaldiak arrunt arinak izan ziren. Irudian, afarian izan ziren batzuk ageri dira. Baina non dago Inma? Erantzuten zaila den arrazoi bategatik emakume bakarra azaltzen da argazkian. Saia zaitetz aurkitzen!